

Modesto Erauskin Gurrutxaga

*Lasarte-Oria,
Gipuzkoa
(1923-2018)*

Aurkibidea

Biografia



Lasarteko Largoenea kale-etxean jaioa. Aita lasartearra zuen, Zabaleta auzokoa, eta ama Albizturkoa. Hamahiru urterekin Oriako Brunet telalantegian hasi zen lanean, eta han jarraitu zuen hemezortzi urte bete arte. Ondoren tailer mekaniko batean aritu zen, eta, azkenik, Michelinen. Gaztetan dantza-taldean ere aritu zen.

Zintak

LAS-010

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-06-03
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. "Centro Republicano"an haragia jan zuten ostiral santuan

- **Erref:** LAS-010/006
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:05:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

Bera umea zenean, euren etxeko lehenengo pisuan "Centro Republicano" a zegoen. Gogoan du ostiral santu batean festa antolatu zutela bertan eta, bijilia egin ordez, haragia jan zuten. Izugarritzko iskanbila sortu zen. Gerra hasi zenean handik alde egin zuten.

2. "Bar Lirio" eta kaleko pasadizoa

- **Erref:** LAS-010/008
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:07:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Lasarte zeharo zaharra zela dio. Gaur egungo Okendo plaza inguruan "Bar Lirio" jarri zuten. Ingurua nolakoa zen. Klean zegoen pasadizotik Hipodromoko kalera ateratzen zen. Etxe atzeetan ukuiluak.</p>

3. Largoenea etxe ingurua nolakoa zen

- **Erref:** LAS-010/009
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:07:13. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Largoenea etxearen atzealdean baratzea zegoen. Inguruan zeuden etxeak norenak ziren; bata Galardi idazkariarena eta bestea Azurzarena. Etxea bota egin zuten eta ez zieten utzi berriz eraikitzen. Antxonea baserria. Inguruan dena belazeak ziren.

4. Geltoki kale ingurua nolakoa zen

- **Erref:** LAS-010/010
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:08:51. **Bukatu:** 00:10:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Geltoki kale ingurua nolakoa zen. Baratzeak zeuden. Herrian bertan ukuilua zuten batzuk aipatzen ditu; simaurra ateratzen zutenean, usaina herri osoan zabaltzen zen. Intxaustitarrek ere baserria zuten. Trena haraino iristen zen.

5. Oriako Brunet lantegira joan-etorria oinez

- **Erref:** LAS-010/012
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:11:56. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Hamahiru urterekin Oriako Brunet lantegian hasi zen lanean. Jornala amari entregatzen zion. Oinez egiten zuen lantegira joan-etorria, trenbidetik. Tranbia eta merkantzia-trena pasatzen ziren Lasartetik. Kotxe gutxi zen garai hartan.

6. Brunet oihal-lantegian lanean

- **Erref:** LAS-010/014
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:14:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Brunet oihal-lantegian kotoiarekin lan egiten zuten. Fardo handiak ekartzen zituzten eta, makinaren laguntzaz, hura mehetzen joaten ziren.

7. Brunet oihal-lantegiaren antolaketa

- **Erref:** LAS-010/016
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:15:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Brunet oihal-lantegiak bost solairu zituen. Solairu bakoitzean zer egiten zen. Bosgarren pisuan haria ateratzen zen eta han egoten ziren beraiek. Umeak ziren artean eta jostatzen ibiltzen ziren.

8. Mutil gazteak eta emakumezkoak Brunet lantegian

- **Erref:** LAS-010/020
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:18:07. **Bukatu:** 00:19:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Brunet lantegian lan egiten zueneko argazki zahar bat erakusten du. Bost mutiko zebiltzan, solairuetan lan egiten zuten bi eta beraiek hiru: Goizuetako bat, Andoaingo Larburu eta bera. Gazteak ziren artean eta, momenturen bat libre zeukatenean, jostatzen ibiltzen ziren. Gainontzeko langileak emakumezkoak ziren.</p>

9. Oriako herritar gehienak Bruneten lanean; nafarren etorrera

- **Erref:** LAS-010/021
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:19:33. **Bukatu:** 00:21:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Oriako herritar gehienek Brunet lantegian lan egiten zuten. Gehienak euskaldunak zirela dio, kalekoak. Gerra sasoian nafarrak (Huizi herria aipatzen du) joan ziren Brunet lantegira lanera eta Orian jarri ziren bizitzen. Bizitza pobrea zeramaten.</p>

10. Atotxan dantza egin zuen Jose Antonio Agirreren aurrean

- **Erref:** LAS-010/025
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:23:27. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Oso umetan hasi zen dantza-taldean. Atotxan bilkura handi bat egin zen eta han dantza egin zuten, Jose Antonio Agirreren aurrean. "El chocolatero" esaten zioten, txokolate-fabrika zuelako. Gaseosa eman zieten ordainetan. Dantza-talde asko bildu ziren. Zelai osoa bete zen.

11. Gerra aurreko Lasarteko dantza-taldea

- **Erref:** LAS-010/027
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:27:02. **Bukatu:** 00:29:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Lasarten dantza-taldea zeukaten gerra aurrean. Batzoki azpian entseatzen zuten. Batzokia non zegoen. Astean bi-hiru aldiz entseatzen zuten. Mutilak bakarrik. Zer dantza egiten zituzten. Zuriz janzten ziren, gerrikoa eta txapelarekin.

12. Herritarren arteko pikeak; maiatzaren 1a

- **Erref:** LAS-010/034
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:35:43. **Bukatu:** 00:37:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Hernanira futbola ikustera oinez joaten ziren, gorbata jantzita. Ez ziren asko joango eta ez zen pikerik izaten. Maiatzaren 1ean Oriakoekin bai sortzen zen iskanbila. Manifestazioan joaten ziren Lasartera eta hangoak zain egoten ziren.

13. Lasarteko San Pedro jaietan inguruko musika-taldeak

- **Erref:** LAS-010/036
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:40:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Lasarten bi etxeren artean egiten zuten dantza. Zubietara ere joaten ziren festetan. Hango abadeak ez zuen ematen baimenik dantza loturako. Lasarteko San Pedro jaietan musika egoten zen. Herriko "Los Urreta" taldearekin

gaupasa egiten zuten. Hurrengo egunean lanera joan behar. "La orquesta Beotibar" ere etortzen zen Tolosatik. Orduko parrandetan gaur egun baino merkeago ibiltzen ziren.

Erauskin Gurrutxaga, Modesto | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com